

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### ERRIBERABEITIKO UDALA

**Prozesu honetan onartu eta baztertutako izangaien behin betiko zerrenda: iraupen luzeko aldi barerako enplegua egonkortzeko salbuespenezko deialdiaren prozesua, 20/2021 Legearen 6. eta 8. xedapen gehigarrien ondoriozkoa, A2 taldeko karrerako funtzionario eta arkitekto tekniko plaza**

Alkateak, apirilaren 12ko 154/2024 Dekretuaren bidez, honako erabaki hau hartu da:

Deialdiaren oinarriak 2022ko abenduaren 12ko ALHAOn (142 zk.) argitaratu dira, eta deialdiaren laburpen bat 2023ko apirilaren 19ko BOEn (93. zk.).

Amaitu da eskaerak aurkezteko hogei egun balioduneko epea, bai eta, hala badagokio, akatsak zuzentzekoa ere. Hori dela eta, honako hau

#### EBAZTEN DUT

1. Onestea Erriberabeitiako Udalean iraupen luzeko aldi barerako enplegua egonkortzekoa karrerako funtzionario plaza baten (A taldea, A2 azpitaldea, arkitekto tekniko) hautaketa prozesuan onartutako eta baztertutako izangaien behin betiko zerrenda.

IZEN-ABIZENAK	NANA	ONARTUA BASTERTUA	ARRAZOIA (1)	AUTOVALORACIÓN PUNTOS
JOSÉ DE PABLO CAMPO	72.**24*C	ONARTUA		80,00000
CÉSAR LOPEZ DE ARMENTIA SÁEZ	*8.5**.*75Y	ONARTUA		80,00000
TERESA LANDALUCE CRESPO	**043.**3H	ONARTUA		88,72870
NAGORE TREPIANA MATEO	16.*19.**B	ONARTUA		47,86580
MARIA TERESA RUIZ DE ANGULO DE LA HERA	13.3**.*19**	ONARTUA		100,00000

(1) Baztertze arrazoiak: ez dago eskaerarik (8A), eskaera epez kanpo egin du (B), eskaera osatu gabea eta epearen barruan zuzendu gabea (C), ez du tasa ordaindu (D), altxera egin du (E).

2. Izangaiek agirien bidez egiaztatu beharko dituzte eskaeran alegatutako merezimenduak, 10 egun balioduneko epean, ebazpen hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, Errekerimendu hori eskaeran alegatutako merezimendu guztiei dagokie, zortzigarren oinarriaren arabera ofizioz kontsultatu behar direnei izan ezik, eskatzaileak aurka egin ezean. Era berean, izangaiek I. eranskina aurkeztu beharko dute, ofizioz kontsultatuko den informazioaren zerrenda eta adostasun/aurka egite eredu jasotzen dituen.

3. Izangaiek adierazi behar dute zein den deialdian parte hartzeko betekizun gisa erabiliko duten titulua, eta, hala badagokio, aurrerago egiaztatu beharko dute. Horretarako, II. eranskina beteta aurkeztu behar dute.

4. Agiriak deialdia egin duen administrazioaren egoitza elektronikoan aurkeztu ahal izango dira, edo aurrez aurre, erakundearen erregistro eta herritarrentzako arretarako bulegoan. Era berean, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 16.4 artikuluan ezartzen dituen tokietako edozeinetan ere aurkeztu ahal izango dira.

5. 9.2 oinarriarekin bat etorritik, "... Onarpen, baztertze eta atzera egiteen zerrendak onartzen dituen alkatezaren ebazpenaren aurka aukerako berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio alkate-udalburuari, hilabeteko (1) epean Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Baztertutako pertsonak merezimenduaren baloraziora aurkeztu ahal izango dira, bai eta euskara-proba kautelaz egitera era, baldin eta egiaztatzen badute

baztertearen aurkako errekurtsua aurkeztu dutela, baldin eta egun horretarako errekurtsua ebatzi ez bada. Lehiaketaren kalifikazioa argitaratzen den egunean ez bada ebatzi jarritako errekurtsua, interesdunek kautelaz egin ahal izango dute euskara-proba. Kautelaz egindako ariketek ez dute inolako baliorik izango errekurtsua ezesten bada”

6. Aipatuko hautaketa prozesuko epaimahai kalifikatzaileko kide izendatzea kide izendatzea honako hauek:

	TITULARRA	ORDEKOA
Epaimahaiburua	Alexander Rodríguez López	Pablo Martínez de Arbuló Echevarría
Bokala	José Javier Díaz Gómez	Olga Pascual Calle
Bokala	M <sup>o</sup> del Carmen Rojo Pitillas	María Luisa Velasco Irusta
IVPAen ordezkaria	Marta Ramírez Gómez	Ana López de la Calle Eceolaza
Idazkaria	Eduardo Alday Galán	Javier Ortiz de Urbina Ugarte

7. Agintzea ebazpen hau ALHAOn argitara dadila, bai eta erakunde honen iragarki taulan eta web orrian ere: [www.riberabaja.eus](http://www.riberabaja.eus).

8. Administrazio bideari amaiera ematen dion ebazpen honen aurka, nahi izanez gero, berraztertzeko errekurtsua jarri ahal izango zaio alkate-lehendakariari, hilabeteko epean, ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, edo, bestela zuzenean, administrazioarekiko auzi errekurtsua, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioan eskuduna den organoan, bi hilabeteko epean, aipatutako egun beretik aurrera. Ez dago errekurtsuak batera jartzerik. Aurrekoez gain, interesdunak egoki jotzen duen beste edozein errekurtsu ere aurkeztu ahal izango du.

Bestalde, epaimahaikide direnak Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urrian 1eko 40/2015 Legearen 23. Artikuluan xedatutako egoeretako batean badaude, edo deialdia baino lehenagoko azken bost urteetan izangaiak prestatzen aritu badira, interesdunek edozein unetan errekusatu ahal izango dituzte epaimahaikideak, bat etorritik aipatutako lege testuaren 24. Artikuluan ezarritakoarekin.

Ribabellosan, 2024ko apirilaren 12an

*Alkatea*

*AMADO MARTÍNEZ DE ITURRATE CUARTANGO*

**I. ERANSKINA**

Deialdi honen oinarri orokorren arabera, alegatutako merezimenduak egiaztatuko dira, kasuen arabera, kontsulta eginez dagokien erregistroetan, administrazio publikoen datu bitartekaritzarako plataforman edo ziurtagiria ematen duen erakundeetan.

Kontsulta horiek kasu guztietan egingo dira, salbu eta eskatzaileak modu arrazoituan horren aurka egin badu eta tratamenduaren ardura duen organoak hori aintzat hartzen badu.

Modu arrazoituan aurka egiten duela adieraziz gero, adierazpen horrekin batera aurkeztu beharko ditu, nahitaez, kontsulta daitezen nahi ez duen agiriak.

Deialdi honetan, deialdia egin duen erakundeak ofizios egiaztatuko ditu eta/edo espedienteetan sartuko ditu, interesdunak berariaz kontrakorik adierazi ezean, honako datu hauek (ikus zortzigarren oinarria):

- NAN/AIZ.
- Titulu akademikoak, unibertsitatekoak zein unibertsitatez kanpokoak.
- Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan inskribatutako euskara ziurtagiriak.
- IVAPen bidez (Administrazio Publikoaren Euskal Institutua) egin eta gainditutako ikastaroen ziurtagiria.
- Gidabaimena (DGT).
- IT txartelen ziurtagiriak.
- Deialdia egin duen administrazioan egindako zerbitzuak.
- Deialdia egin duen administrazioan gainditutako hautaprobak.

**DATUAK KONTSULTATZEKO ADOSTASUNA/AURKA EGITEA**

..... jaunak/andreak (NAN/AIZ: .....),  
..... prozedurari dagokionez,  
honako hau

**ADIERAZTEN DU (markatu dagokiona):**

- Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 28.2 artikulua arabera, ez nago eranskin honetan adierazitako datuak kontsultatzearen aurka.
- Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 28.2 artikuluan xedatutakoa aplikatuz, informazio hau kontsultatzearen aurka egiten dut:
- Titulu akademikoa.
- Euskarako hizkuntza eskakizuna.
- IVAPen bidez egin eta gainditutako ikastaroen ziurtagiria.
- Gidabaimena (DGT).
- IT txartelen ziurtagiriak.
- Deialdia egin duen administrazioan egindako zerbitzuak.
- Deialdia egin duen administrazioan gainditutako hautaprobak.

Aurka egiteko arrazoiak:

.....  
.....

Agiri hauek kontsultatzearen aurka nago, eta neuk aurkezten ditut:

.....  
.....  
....., .....(e) ko .....ren .....(a)

Sin.:

## II. ERANSKINA

### BETEKIZUN GISA AURKEZTEN DEN TITULUAREN ADIERAZPENA

..... jaunak/andreak (NAN/AIZ:.....),  
..... erakundearen.....  
deialdiari dagokionez, honako hau

ADIERAZTEN DU:

Deialdi honetan parte hartzeko betekizun gisa..... titulua erabiliko dut,  
egun honetan lortua: .....

....., .....(e) ko .....ren .....(a)

Sin.: